

Zazpi arpegiaak

Zer arpegi? Zazpi pekotu larri edo buruenak. Pekatuari gora exkasa emoten dautsagun garai itsusi ontan be gogoan artzeakoak. Goian dago Jainkoa, ezta gurekin arduratzan, guk egiñiko gaiztakeriak be ez dira araiño eltzen: onela itz egin oi da. Jainkoa, alam be, gugandik ur-ur dago, geure barruan. Pekatuak, beraz, naiz ariña naiz astuna izan, bete-betean eta egiaz artu ta zauritzen dau Aren aunditsuna. Eta zazpi eratan zauritu be. Tu gizonak, ori egitean, zazpi arpegikera agertzen ditu, zazpirak motz eta itsusiak. Istorian ezagun ditugu olako pekatari ta arpegi nabarmen batzuk. Ona, oraintsu X. Dominguez'ek Mundo Cristiano'n argitara emonikolan au, oso jakingarria.

1) BEKAITZA

Kain.—«... eta Jaunak Kain'i esan eutson: «Zergaitik abil asarré?, eta zergaitik dago ire arpegia beruntz begira? On egingo ba-euke, gorantz bear eukek jaso; gaitz egin ezkerro, barriz, ataurrean daukak pekatua zain... Kain'ek, gero, bere anai Abel'i: «Goazen kanpora». Eta biak landan egozala, Kain'ek, bere anai Abel eraso ta il egin eban».

Bekaitza, iñoren on-damu edobere burua bakartu ta bertan sar ezin ikusizko pekatua da. Ezintzeko, anaiakaz artu-emonik ez izan

ercan besteen onik. Eta au, zuzenzuzen doa alkar maitasunaren kontra. Eta Kristok: «Alkar maitasunean ezagutuko dozue nire jarrai. Ile zariela».

Ipuiña izango da, nik uste; baiña argitasun aundia zabaltzen dauana berietan. Bein bekaizti bat, iñoren on-damuz erretako bat, eskatzen ebana emongo yakola, esan eutsoen; baiña bere auzokoari be olako bi geiago emongo yakozala, gaiñeratuaz. Eta bekaizti txibiz arek auxe eskatu eban; astinaldi eder bat emon eioela, makilla. Bere auzokoari, olañ, birritan autsak aterako eutsoezan,

Urko lagunaren aurkezko pekatua da. Aita bat-berarene zeme ta anai gaitun goi-semetzekoaren kontrakoa. Abel'en odoia zeruradeiez dago lurretik. Bekaitzaren erpapean jausi dana —naiz odolagaz naiz odol barik— deika dago; bekaitzia, ostera, igeska dabil, gorderik, bildurrez. Lurreko lenengo muruak, arresiak, Kain'ek jaso zituan, Enok'ek eregi eban urian, Ezintzeko, anaiakaz artu-emonik ez izan

tearren, bere erraietan kiribildu ta ibzikarrari eragiteko.

Illuna da bekaitza, zurbillatagaratza: gizon orok zurraldi bi artzea... gurako leuke.

2) ASARREA

Jerges.—Peloponeso'ko gerratean, edestiak diñanez, Jerges, Persia'ko erredeak, cudea-ontzitalde ikaracarri bat bialdu eban Grezia'ko itxasaldeen kontra; Salamina'n, baiña, azpiratua izan zan ontzidi au, eta bertatik biziaz geratu ziranak itxasoak iruntsi zituan. Erregeak, orduan, zentzunik bako asarre-aldi baten, Elesponto'ko urak kateakaz zigor-azo egiezala, agindu eban.

Erre-miña zart egin eta askatu oi da, gure libre izateak, gure norritasun zaurituak, arrokeriz puztua, eragozpen bat, azpiratu ezindako muga bat aurrez aurre aurkitzen. Asarrea da zentzunik bako biurkikeriaren pekatua; gizonak ez dau nai mugarik, ez esirik. Onekin, baiña, gizona bera mugatua, bear ez dana ta momentuko dala ukatu nai leuke; ez, ez dau uste mugartean dagoanik, eta mugarte oneik, ondo jokatzen ba'daki, one-

ra daroanik, eta, ez ba'daki, erre-miñetan jarten dauanik. Gizaseme suak artu bat, izan be, gauza negargarria da. Aregan gelditzen ete Jainkoaren iruditik ezer? Odei gorri batek itsutzen dautso adimena, ta naimena lema barik izurtzen yako, bere zentzunik bako olde-indarrari gogor egiten dautsonaren kontra.

Itxasoa bera be zigorkatu daikegu asarre-aldian, beste lelokeri asko be egin daikeguz. Itzak, «berbak» bota leitekez, iztegiaren egal-bazterretan metatzen diran orreitakoak nubait; injustizi ta bidebagkeri izugarriak egin daikeguz. Eldu leiteke birao ta aiñen eta maldizñoetaraiño. Asarreak lausotzen dauen gizona, ikuskizun zakar negargarria ezeze, zentzun bako abere bat be iba-dogu.

—Eh, eh!

—Eh, eh!

—Eh, eh!

—Eh, eh!

—Eh, eh!

—Eh, eh!

Eta antzekoak ugari. Eta sarri.

Neu naz emen nagusi. Neuri dagokit lotsa ta gora. Beste guztia makurtu bedi, bear-bearrez, neure naikerien mende; ta beste ori edo beste orreik makurtzen ez baldin

ba'dira, laster askatuko dot trumoi-kutxa eta, ezertariko erruki barik, suak jotako zezena iduri, sumiñaren izurdura zear noake zoratua. Orrezaz gain, neure burua zuritzearren, ori neure seta dala diñot; baiña egiaz orrek nabamentzen dauana auxe da: nire senik eza, nire nortasunik eza.

Lenengo «zapoa» bota baiño len, ez litzateke gauza txarra izango, ez, Jerges'i begitu bat egitea, Elesponto zigorkatzen.

3) NAGIKERIA

Anibal.—Zer jazo yakon Anibal'i Kapua'n? Iskilluz (armaz) ausi ta menderatu eban Sagunto; Valenzia'ko itxas-bazterretatik Pirineo ta Alpes zear eroan zitun bere gudarosteak; Erroma'ko gerratalde osoak azpiratu zitun Trasimeno'n eta Cannas'en. Eta edeslarririk gaurkoen guztiak be, adierazoi dausku, Anibal'ek ez ebala iñioiz be Erroma artuko, eta ez gero gudari-buru onen nagikeriagaitik, Erroma bere eskubideak zaintzeko prest egoalako baiño.

Eta, azkenik, bardin dala uste dot. Or geratu da Anibal naikoa eratzia, alperkeriaren, itxitasuna-

ren, nai-ezaren eta zabarkeriaren laburta lez. Baiña goragoko zelaitik begiratu ezkero, bizi-errekanren eskabide latz estuagoa da: Jainkoak bear egiteko sortu eban gizena, eta lan orretan oso-osoia izan eiten. Eta lanaren premiña au lenmaillakoa dala iruditzen yat niri; gaurko mundu onetan lan egiteau, ta zer askotan lanari ekitea bera be, naitaezkoa dogu. Guztigatxa da lan egin barik bizi izatea.

Alan be, nagikeria, pekatu larria dan aldetik, ez dagokio bakar-bakarrik, ezta berariz be bear bada, lanari berari. Alperkeriak arimenaren gaitasunak zauritzen ditu, Kristok eskatzen dauskenea biurtu bearra daugu-ta. «Añore gurutza», «Saldu daukazu guztia», «Asko dira deituak», «... sareik, sareak itxita, jarrai joan osoan».

Uste bitxi edo paradoxa da geratu daiteke baita «bearrak eta bat bakar» aretan be: Maitik aukeratu eban zatirik onena, au da, ezer ez egitea. Ezer ez egin? Gauzak egitea ez da nagikeriaren kontrakoa; jo ta ke lanari ekiñik, zoratu ta arri-eraztea, ezta ez nagi egotearen aurkakoa. Arimeak Kristogana biurtzeko ditun gaitasunak zauritu oi ditu nagikeriak. Ogei

urtez egona dogu Avila'ko Teresa deuna, komentuko koruan zutunik edo jarrita, otoitz egiteko aurkitzen zituan oztopo ta durduak arduraz azpiratu nairik. Gauza utsa itxuraz, baiña onek, uste dozue, ez dauala eskatzen bene-benetako ardura?

Arimen geroko zoritzarraz, auxe bakarrik atera geinke Ebanjeliotik, ziur beintzat: ifernura doazanak «egin ez ebenak» dirala: «Jaten emon ez zeustalako, edaten emon ez zeustalako...».

Nik ez dakit zer jazo yakon Anibal'i Kapua'n, baiña nagikeri arek, itxitasun arek, gogorik ez arek, Edestiaren zantzua aldatu eban. Eta gaur, Jainkoarren, Kapua, zabarkeri ta ondamendizko gizarteak, edozein lekutan daukagu.

4) ZEKENKERIA

Judas.—Erregen eguneko gauzarik politena, edertasun plastikuari dagokionez beintzat, Meltxor'ek, Gaspar'ek eta Baltasar'ek, «euren kutxatillak edegirik, urea, intentsua ta mirrea eskiñi eutsoenekoa» da. Antz onetan edesten dausku Mateo'k (2, 14).

Bateko eun eta betiko bizitza, fruturik ez ekarren pikondo zikotza, talentua lurpean gorde eban morroia... Eta Judas «eutsi» guztien buru ta nagusi, ogetamr diruz Kristo saltzen.

Erregen eguneko gauzarik aintzagarriena, politena, Erregeak euren esku-erakutsi ta opariak eskin-tzen dautsoezanekoa da. Guztiz polita, bai, ta oindiño be ain jolasgarri ta ameskor yakun esku-zabaltasun ortara jokatu oi dogu geure seme-alabakaz.

Judas'ek Kristo 30 zidar-dirugaitik bakar-bakarrik saldu ebanik, ez dot egundo be uste izan. Judas judutarra zan, eta alako zanez, Nazaretarraren mesiatasunaren aurrean, heste zerbait ebilkion, zondik ex-ektorrona». Baiña orixenatik, heste beda, lager-erazter daiteke, heste harrizko kariotaren bidez, heste harrizko harrizko sustraia, heste harrizko harrizko sustraia...

Zoriontzat, zekeneria berrekotzat, zekeneria berrekotzat, gauzaenganako gurari, itsasperi eta griñagetara.

—Zoro! Gaur gabean ilgo az. Zertarako al dok batu dokan guztia? «Jaungoikoa maite izan gauza guztien gaiñetik» ekarren lenagoiko Kristau-Ikasbideak. Eta Queve-

do'konan osotzen eban zeken bat-en irudia: «...danak beretzat batutakoan, asiko zan, arein gaiñetik Jainkoa maite izaten».

Zekenkeriari jarri aurrez aurre... biotz-zabaltasun osoa, au da, emotea; baiña ez gero «lauko ta jantzi erabillia» deitu yakona. «Ez eizue eroan zorrork, ez dirurik», gogoratu eban Martin doneak, bere soin-gaiñekoaren erdia emotean...

Ederra bai dala Meltxor, Gaspar eta Baltasar guztia emoten ikus-tea; geure arrokeriari ke-aldika erre oi dautsogun intzentsua, geure nasaikerian galdu genduan mirea, geure zekenkeripean ustel-tzen dan urea... «Eta guk dana itxi dogunok, zer egingo dogu Erreñuan?». Emoteak dakarren zoriona. Emoteak dakarren zerutar poztasuna. Salomon bera be, bere aintza ta ospe guztiaren erdian, etzan jantzi lili bat baizen txukun.

Billa lenen-lenen Jainkoaren erreñua. Ez zaitez ibilli kezkaz, blarko egunaren arduraz.

5) ARROKERIA

Fariseotarra.—Gizon bi igon zi-

ran eleizara, otoiitz egiten. Bata fariseotarra zan eta bestea zergalaria, au da, erriko pagu-dirua jaso iñarduan: «Eskerrak, ene Jainkoa, beste gizonak lez ez nazalako, au da, lapur, biurri, ezkontz-ausle, ez ta arako diru-batzaille ori lez be. «Eta fariseotarra zintzotu barik biurtu zan etxera, goratzen dana beeratua izango da-ta».

Jainkoak arroai arpegia emotea dautse. Arrokeria adimenetik datoren pekatua dogu. Arrokeria da Luzbel'en pekatua: «Non Serviam!» («Ez zaitut morroituko»). Adan'en pekatua berrokeria da, griñak errazoiaren inizioa eukazanean: «Jainkoak lez aho zarie». Babel'eko pekatua da Jainkoaga, naiño elduko dana zait jaso daigun».

Oraintsu, asteroko arrokeria baten esaten zan: «Kilu? Igitzen dodan itzik garrantzitsua, auxet da: «Neu», «Zer dala-ta dijiltz zahapartaka atzerriak, eta erriak zer dala-ta biribiltzen dabez asmo utsalak? Goian dagoanak, baiña, barreka begiratzen ditu. Iguingarrí ditu Jaunak...».

«Arrokeria zuk? Zertzaz, baiña?», itanduten dau Bideak. «Nik

ez dot arro-biderik, neure argalke-rietan izan ezik», erantzun darioa Paul deunak. Ba-da liburu bat izenburu onekin: «Giza-ergelkeria-ren edestia»; eta berau, alai ta poz-erazlez gaiñera, asko erakus-ten dauana da. Ez da errez siñis-tutekoa, zelako lelokerietara eroan leiken arrokeriak, Daniel'en liburuak aitatzentzauskuz Nabukodono-seren arropuzkeria ta aren urezko irudia; onen aurrean bizi-dun guztiak makurtu bear ehen burua. Beste aldetik: «Ona emen Jaunaren mirabea» edo «biotzez otzan eta umilla dana», edo...

Adimeneko pekatua da arroke-ria. Gizonaren zatirik argi ta du-ñenaren pekatua, Jainkoaren kon-tra jagi ta Aren aitatasun alguztiduna ukaturik, garean eta dau-kagun guzta emona izan yakula ezagutu nai ez dauanarena. Arrokeria, zerena baiña?

6) LIZUNKERIA

Enrike VIII'gna.—Lizunkeriaz mintzatzean gomutara datorkigun Edestiko lenengo izena, Sodoma ta Gomorra ostean, Inglaterra'ko Enrike VIII'gnarena da. Zergaitik? Erakusgarri ta eredu berezi bat berak damoskulako. Aragoi'ko Ka-

talina'gaz ezkondua, ezkontz-loka-rria askatzeko eskatzen dau. Erro-ma'k ez dau ontzat artzen aren eskabidea. Jainkoak batu dauana, ez begi gizonak banandu.

Lera txarrak bultz eraginda, Erregiña zapuztu ta Ana Bolena'-kin alkartzen da. 1536'an. Ana Bolena'ri, ezkontz-ausle zala-ta, bu-rua moztu eutsoen, eta Enrike Juana Seymour'ekin ezkontzen da. Geroago, Ana Glves, Katalina Howard, Katalina Parr...

Enrike VIII'gna, bere erregetza-ko len-urteetan, Eleizearen seme-zintzo izan zan, naiz-ta garai aretan au, protestenteen Erabarri-tza zala-ta, naikoa astindua izan. Aragi-lerak xito lebanetik, ostera, laukia ditzan, osoan aldatu zan. Ez ditzan, gure gizonen erantzi ehetzen, gure gizonen erantzi. Nau-sig, gure gizonen erantzi. Eleizearen seme-zintzo izan zan. Behera, gure gizonen erantzi lau, urka-mendu...

Lizunkeriak lauso, itsu ta abere biurtzen dau. Era gaur, gizarteko bizikera osoan, lizunkerizko atsa saltzen da, diabruak berak dakian neurrian. Ziñe, teatru, moda, za-balkunde, literatura ta abar, inguruko guzta lizunkeri-kutsuz atsi-

tua daukagu. Lizun-kutsuok, bear bada, banan banan zuritu ta parkatu daikeguzanak dira, baiña ertz guztiai begiratu ezkero, dana loitu daroan uiol bat osotzen daus-kue. Ta ona lenengo ondorena: esita babes guztiak —ez gero kristau aszetikarenak, oin-biko luma-bakoen soillenak be bai— erbaztu, erasan eta arrakalaturik, amil-bera jausten dira zaratatsu.

Enrike VIII'gnaren kasua, berazkoak dalako bear bada, neurri bakoa da egiaz; baiña orrenbeste zarata egitera eldu ez arren bezenbat zauri, zenbat urratze, zenbat garraztasun, trajedi ta onamendi ez ete ditu sortzen pekatularri onek?

Errukitsu agertu zan Jesus pekatari guztiakaz, emakume ezkontz ausleari be parkatu egin eutson... Erodes lizunaren aurrera eroan ebanean, Bera, Itza, ixil-ixilik, mutu geratu zan. Eta ikaragarria da benetan Itza'ren ixiltasun ori.

7) SALOKERIA

Salokeria, jan-edankeria pekatu da... «gain-bera egiña». Bigarren maillako pekatu bat, ozt-ozta. Eta

ia adierazpen eta esan-nai sozial bat dauka, beartua ta ezin-besteko. Salokeria, ain zuzen, gizonak daukan zerik gure-ezenean —karrenean— jausten da, Lizunkiak bear bada zuribide edo atxak bat aurkitu leike ari edo mueta, (species) iraun - azoteko senean Salokeriak ez, ez dau iñundik iñra be bere jokabidea legetzeko biderik aurkitzen, maiko atsegia dan aldetik beintzat.

Eliogabalo, Errroma'ko agintear nagusiak, Kristo osteko 210'gune urtean Karakalla'ren urrengo izanak, morroi ta menpekoak ematen ei eutsoezan janaritzat berur-maeletako zamo ta zapardarraianai.

Ez. Gaur, egia esan, ezta gaitz salokeriz pekatu egiten. Errezago da norbere naikeri, zego-aldi biotzeri baten olatu gaizigeri egitea; bai, errezago da gau ta akeraren zentzun-erakapen bater mende jaustea. Gosea ikaragariak ikusi bear izan ditu gure munduak, eta oraintsungo gosteak atan be, «...eta berrogei egun eta berrogei gau barurik egin ondoren, gose izan zan». Onelaxe asten dau Mateo deunak bere kontakizuna lenengo Ebanjelioan. Etxuan deunak diñosku an, amarga-

rren atalean, ia azkenerantza: «idatzita egoana bete zedin, au esan eban: «Egarri naz». «Teilla lez legortu yat eztarria, ago-sapaiari itsatsita dago nire miiña...», abestu eban Dabid igarleak 22'garrren salmuian.

Kristo'ren gosea ta egarria. Itza'ren jainkotasunaren giza-agerpen arrigarria. Esan nai dot: Jainko, Kristo'gan, edesti (istori) egin zanean, gose ta egarri egin zala. Zuzentasunaren egarria, jakina, baiña baita ogiarena ta urarena be. Orain ba-da munduko mailatan zabalkunde bat, gose dira-arrainai.

nen alde deika. Irugarren munduko gosea, India'koen gosea...

—Nik, neure patatatxoak...

Eta egiaz patata batzuk jatea ez da pekatu larria, baiña... Ez dozue gogoratzen Rabindranath Tagore'ren ipuiña?: «Bidez joian errege-semea ta garia eskatu eustan. Garau bi emon neutsozan. Gabaz nik, eskale onek, neure garauak zenbantu nebazanean,urrezko garau bi aurkitu nitun. Zergaitik ez ete neutsan emon neure gari-mixeri guztia?...».

Oiz

